# Euskal Herriko futbolariak

**Nazio bat Selekzio bat Federazio bat**

Aurreko astean Euskadiko Futbol Federazioak (EFF) aurtengo abenduan *Euskadi-Iran* partidua izango dela publikoki esan ondotik, idatzi hau sinatzen dugun euskal futbolariok Euskal Herri osoari zuzendu asmoz, honako hausnarketa plazaratu nahi dugu:

Euskal futbolariok gure nazioa munduaren aurrean ordezkatzeko dugun nahia eta borondatea argiki plazaratu izan dugu urtez urte antolatu izan diren lehia ezberdinetan. Bide honetan eman diren pausoak nabarmenak izan dira, azken urratsa pasa den urtean eman genuelarik.

Urratsak urrats, egun euskal futbolariok bizi dugun errealitatea gure nahi eta borondatetik oso urrun kokatzen dugu. Gaur egun Euskal Herri osoko futbolariak biltzen gaituen futbol federaziorik ere ez dugu.

Euskadiko Futbol Federazioak ez ditu aintzat hartzen Nafarroa Garaia, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan dauden futbol taldeak. Halere, ustez pausoak emateko borondateak bultzaturik, gaur gaurkoz nazio mailan aritzen den gizonezkoen selekzioa osatzerakoan zazpi euskal lurraldeetako futbolariak hartzen dira kontutan. Zentzu horretan ulertu behar da pasa den urtean eman genuen urratsa, hortik dator EUSKAL HERRIKO SELEKZIOAren izena eta izana.

Euskadiko Futbol Federazioko kideek futbolarion ordezkaritza batekin bilkura egin zuten irailean. Aurtengo gabonetako partidari begira gauzak nola zeuden azaldu asmoz bi aukera posible jarri zitzaizkigun mahai gainean: bata, aurten iazko aurrera pausoari muzin egin eta “Euskadi” izenarekin jokatzea eta bestea, hori onartu ezean, aurten partidarik ez jokatzea. Beren hitzetan, ez zeuden erabat ados bi aukeretako inorekin, baina ez omen dute beste irtenbiderik.

**Garbi azaldu zitzaigun zergatik eta nork aginduta aldatu behar zen “Euskal Herria” izena**, baina atal honen zehaztapenak Euskadiko Futbol Federazioari dagozkio azaltzea, gu ez gara horretan sartuko.

Gaur egun euskal kirolariak batuko gaituzten federazio nazionalik ez egoteaz gain, egungo **Euskal Autonomi Erkidegoko federazioetatik ez dago borondate eta asmorik norabide horretan pausoak emateko**. Are gehiago, norabide honetan emaniko aurrera pausoetan atzera egin nahi dute. Gaur egun **izenaren aitzakian atzera egin nahi dutenak, bihar osaketaren baitan** (zazpi herrialdetako futbolariak kontutan hartzen ditu egungo selekzioak) **ere atzera egin eta Euskal Autonomi Erkidegoko selekzio bat osatu nahiko dute** agian; beste hainbat kiroletan gertatzen den bezala.

Euskal Herriko kirolariok ez gaude prest atzera egiteko. Guk zazpi herrialde eta 21.000km²-k osatzen duen nazioa ordezkatu nahi dugu eta horrek gaur eta orain “Euskal Herria” izena du.

Guztiok dakigu “Euskal Herria” izenarekin zein arazo dagoen. Instituzioetatik “Euskadi” hitza, terminoa, mamiz hustu dute. Gaur egun Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi eta Zuberoak osatzen duten nazioari “Euskal Herria” deritzo.

Horren adibide, esaterako:

- Urriaren 25ean Gasteizko Gobernutik antolaturiko ekitaldian "Euskal Herria" hitzak osatu zituzten herritarren parte hartzearekin.

Edota:

- Iaz, Bilboko kaleak bete zituzten milaka euskal zaleek "Euskal Herria nazio bat selekzio bat" aldarrikatu zuten.

Pasa den urtean, EFF-k eta jokalariok hala adostuta, euskal selekzioak aurrera pauso bat eman zuen "Euskal Herria" izena bere eginaz eta aurten "Euskadi" izenarekin jokatzea atzera pausoa litzateke.

**Zergatik behartu nahi gaituzte Euskal Herriko kirolariak atzera egitera?**

Euskal Herriko kirolariok ez gaude prest atzera egiteko. **Iaz errealitate bihurtu genuen ametsa, ez dugu berriro amets bihurtzen utziko. Kirolariok ez dugu atzera egingo.**

**Euskal Herriko futbolariok gure hitzari eta konpromisoari eusten diogu** Euskal Herriaren eta zaleen aurrean. Gaur arte eginiko bideari eutsi eta aurrera pausoak emateko prest gaude. **Aukeratuak izaten garen heinean, partidak jokatzeko prest gaude,** hori da gure nahia.

Bazekiten, esan genielako, atzera egiteak aurten partidarik ez jokatzea ekar zezakeela. Guk, aurreko urtean beraiekin adostu genuen erabakia mantentzeko eskatzen diegu, Euskal Herriko Selekzioak, nazioarteko txapelketa ofizialetan herri gisara parte hartzeko aukera izatea lortzeko bidean atzera egin ez dezagun.

**Beraiek hartu dute atzera egiteko erabakia, beraiek dira emandako hitza bete ez dutenak eta orain, haiei dagokie zuzentzea. Hala ez bada, gu ez gara partida jokatzera joango. Eta beraiena izango da ardura.**

Euskal Herrian 2008ko azaroaren 13an

Euskal Herriko Futbolariak

# Adierazpenaren sinatzaileak

- **Aitor OCIO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Ander ALAÑA** *Eibarko jokalaria*
- **Ander ITURRASPE** *Athletic-eko jokalaria*
- **Ander MURILLO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Andoni IRAOLA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Aritz ADURIZ** *Mallorca-ko jokalaria*
- **Armando RIBEIRO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Arnaud BARSACQ** *Angelu Genets-eko jokalaria*
- **Asier SANCHEZ** *Eibarko jokalaria*
- **Carlos GURPEGI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Carlos MARTINEZ** *Realeko jokalaria*
- **Dani ESTRADA** *Realeko jokalaria*
- **David LOPEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eñaut ZUBIKARAI** *Realeko jokalaria*
- **Fernando AMOREBIETA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Fernando LLORENTE** *Athletic-eko jokalaria*
- **Fran YESTE** *Athletic-eko jokalaria*
- **Gaizka GARITANO** *Alaveseko jokalaria*
- **Gari URANGA** *Castellon-eko jokalaria*
- **German BELTRAN** *Eibarko jokalaria*
- **Gorka ELUSTONDO** *Realeko jokalaria*
- **Gorka IRAIZOZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Gregory LEFEBRE** *Angelu Genets-eko jokalaria*
- **Iban FAGOAGA** *Alaveseko jokalaria*
- **Igor GABILONDO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Iñaki LAFUENTE** *Athletic-eko jokalaria*
- **Iñaki MUÑOZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Iñigo DIAZ DE CERIO** *Realeko jokalaria*
- **Iñigo KALDERON** *Alaveseko jokalaria*
- **Iñigo VELEZ DE MENDIZABAL** *Athletic-eko jokalaria*
- **Ion VELEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Jabi CASAS** *Athletic-eko jokalaria*
- **Jabi MARTINEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Jerome ARANZET** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Jerome LALANE** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Jon ANSOTEGI** *Realeko jokalaria*
- **Jon URZELAI** *Eibarko jokalaria*
- **Joseba DEL OLMO** *Athletic-eko jokalaria*

- **Joseba ETXEBERRIA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Joseba GARMENDIA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Josu ETXANIZ** *Eibarko jokalaria*
- **Josu SARRIEGI** *Panathynaikos-eko jokalaria*
- **Julien LAPORTE** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Koikili LERTXUNDI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Laurent SAUTIER** *Angelu Genets-eko jokalaria*
- **Marc ESTRADE** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Markel BERGARA** *Realeko jokalaria*
- **Markel ROBLES** *Eibarko jokalaria*
- **Markel SUSAETA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Maxime PAGEAULT** *Angelu Genets-eko jokalaria*
- **Mikel ARANBURU** *Realeko jokalaria*
- **Mikel BALENTZIAGA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Mikel GONZALEZ** *Realeko jokalaria*
- **Mikel LABAKA** *Realeko jokalaria*
- **Nicolas LAFITTE** *Angelu Genets-eko jokalaria*
- **Pablo ORBAIZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Raul GARCIA** *Eibarko jokalaria*
- **Roberto MARTINEZ "TIKO"** *Eibarko jokalaria*
- **Roberto PAMPIN** *Eibarko jokalaria*
- **Sebastien CAMIADE** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Sendoa AGIRRE** *Hercules-eko jokalaria*
- **Txema AÑIBARRO** *Eibarko jokalaria*
- **Txiki LOMBRAÑA** *Eibarko jokalaria*
- **Unai ALBA** *Hercules-eko jokalaria*
- **Unai EXPOSITO** *Hercules-eko jokalaria*
- **Ustaritz ALDEKOAOTALORA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Xabi PRIETO** *Realeko jokalaria*
- **Xabier CASTILLO** *Realeko jokalaria*
- **Xabier ETXEITA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Ximun DUHOUR** *Baiona Avironeko jokalaria*
- **Zigor GOIKURIA** *Eibarko jokalaria*

## Sinatzaileekin bat egiten duten emakumezko futbolariak

- **Ainara HERRERO** *Realeko jokalaria*
- **Ainhoa MATEOS** *Realeko jokalaria*
- **Ainhoa TIRAPU** *Athletic-eko jokalaria*
- **Aintzane ENCIAS** *Realeko jokalaria*
- **Amaia LAMBARRI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Amaia OLABARRIETA** *Athletic-eko jokalaria*

- **Ana MAGAÑA** *Realeko jokalaria*
- **Andere LEGINA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Ane ORBEGOZO** *Realeko jokalaria*
- **Ane ORMAZABAL** *Realeko jokalaria*
- **Arrate RUEDA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eba FERREIRA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eider HIDALGO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eleia GANGOITI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eli IBARRA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Eli SARASOLA** *Realeko jokalaria*
- **Erika VAZQUEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Estibalitz AIZPURUA** *Realeko jokalaria*
- **Evelyn SANTOS** *Realeko jokalaria*
- **Garazi UNIBASO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Gurutze FERNANDEZ** *Levanteko jokalaria*
- **Iragarne PIÑERO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Iraia ITURREGUI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Irene PAREDES** *Realeko jokalaria*
- **Irune MURUA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Itsaso GARCIA** *Realeko jokalaria*
- **Itxaso NAVASKUES** *Athletic-eko jokalaria*
- **Joana FLABIANO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Larraitz LUCAS** *Realeko jokalaria*
- **Leire LANDA** *Realeko jokalaria*
- **Maialen ZELAIA** *Realeko jokalaria*
- **Maite LIZASO** *Realeko jokalaria*
- **Marta DOKANDO** *Athletic de Madrid-eko jokalaria*
- **Marta MORENO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Naiara ELGORRIAGA** *Realeko jokalaria*
- **Nekane DIEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Nerea PEREZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Oihana GALDONA** *Realeko jokalaria*
- **Paula MATEO** *Athletic-eko jokalaria*
- **Sandra GARCIA** *Athletic-eko jokalaria*
- **Sandra RAMAJO** *Realeko jokalaria*
- **Sokoa GARATE** *Realeko jokalaria*
- **Sonia LOPEZ** *Realeko jokalaria*
- **Tzibi JUARISTI** *Athletic-eko jokalaria*
- **Vanesa RODRIGUEZ** *Athletic-eko jokalaria*
- **Zuriñe GIL** *Athletic-eko jokalaria*

## Sinatzaileekin bat egiten duten futbolari ohiak

- **Agustin ARANZABAL** *Realeko jokalari ohia*
- **Agustin GAJATE** *Realeko jokalari ohia*
- **Aitor FRESAN** *Osasunako jokalari ohia*
- **Aitor HUEGUN** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Aitor LARRAZABAL** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Aitor LOPEZ REKARTE** *Realeko jokalari ohia*
- **Andoni LAKABEG** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Antonio KARMONA** *Alaveseko jokalari ohia*
- **Arantza ANDRES** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Asier GARCIA FUENTES** *Athletic-eko eta Osasunako jokalari ohia*
- **Belen GONZALEZ** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Bittor ALKIZA** *Athletic-eko eta Realeko jokalari ohia*
- **Bixente OIARZABAL** *Eibarko jokalari ohia*
- **Bixio GORRIZ** *Realeko jokalari ohia*
- **Edorta IBARRONDO** *Osasunako jokalari ohia*
- **Egoitz SUKIA** *Eibarko jokalari ohia*
- **Endika GUARROTXENA** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Galder IZAOLA** *Eibarko jokalari ohia*
- **Igor ARENAZA** *Eibarko jokalari ohia*
- **Igor JAUREGI** *Realeko jokalari ohia*
- **Iker SARRIEGI** *Realeko jokalari ohia*
- **Iñaki ZABALA** *Realeko jokalari ohia*
- **Inaxio KORTABARRIA** *Realeko jokalari ohia*
- **Iñigo ARRIOLA** *Eibarko jokalari ohia*
- **Iñigo ARRIOLA** *Eibarko jokalari ohia*
- **Ismael URZAIZ** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Jabi GURUZETA** *Realeko jokalari ohia*
- **Javier OLAIZOLA** *Mallorcako jokalari ohia*
- **Jokin URIA** *Realeko jokalari ohia*
- **Jon PEREZ BOLO** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Joseba ARREGI** *Eibarko jokalari ohia*
- **Joseba LIZASO** *Eibarko jokalari ohia*
- **Juanjo ELGEZABAL** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Leire ZABALA** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Luis Mari LOPEZ RECARTE** *Realeko eta Bartzelonako jokalari ohia*
- **Lutxo ITURRINO** *Athletic-eko eta Realeko jokalari ohia*
- **Manu URBIETA** *Realeko jokalari ohia*
- **Maria GOÑI** *Lagunak-eko jokalaria ohia*
- **Mikel ETXABE** *Eibarko jokalari ohia*
- **Mikel LASA** *Athletic-eko, Realeko eta R. Madrid-eko jokalari ohia*

- **Mikel LOINAZ** *Realeko jokalari ohia*
- **Nerea ONANDIA** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Oskar ARTETXE** *Eibarko jokalari ohia*
- **Ritxi ARRIEN** *Athletic-eko eta Realeko jokalari ohia*
- **Ritxi MENDIGUREN** *Athletic-eko jokalari ohia*
- **Xabi Oliden** *Eibarko jokalari ohia*
- **Xanti BAKERO** *Realeko jokalari ohia*